

Alemaniarren inbasioa eta Eusko Jaurlaritzaren 1939-1940

Deia, 1983-09-04.

Espainiako gerra 1939garrengo martxoaren 28an amaitu zen osoki; hau baita Francoren tropak Madrid hartzen duten eguna.

Ia hiru urte luzeko gerra ofiziala amaitu da; hilak, miloi erdi, diotenez; baina ez da honek martxan jarri zuen karnizeria amaitu: orain hasten dira Francotarrek sortutako gerra galtzeko okerra egin dutenak gartzeletan sartzen, fusilatzen, eta konzentrazio zelaia teratzen hasteko ordua.

Baina pake gehiegi da bost hilabete iragan dena hilentzat eta bizientzat, eta 1939 bereko irailak 1, Franco babestu eta armatu eta Gernika eta besteko bonbardaketan lagundu diotenak orain berea den sei urteko beste karnizeria bati hasiera eman diote, eta harrigarria den efikaziarekin; Norbegoia eta Danimarka hartu (1940garrengo martxoa) eta Herberak, Belgika eta Frantziaren aurkako eraso gertatzen ari direla, Parisen kokatu den Eusko Jaurlaritzaren oraindik lehengoaren ondore diren errefuxiatuei laguntzak antolatzen; La Reo Se Raie Hospitalean, Ilbarritzen, zaurituak sendatzen, eta Euskadi preso geratu direnei Informazio Zerbitzu baten bidez laguntzak eratzten ari da.¹

Maiatzaren 8an (1940) irten zen Agirre familiarekin Frantzia-Beljikako mugan dagoen herri txiki batetara (La Panne) aspaldi ikusi gabeko senideak bisitatzea. "Martxoak 10-dio Agirre Lehendakariak gero² bonbardaketa izugarri batek esnatu ginuzten; kalera irten nintzenez zerua ke beltzez estalia zegoen; alemaniarrek Dunkerkeko gasolina gordailuak leher arazi eta sugar izelak biztu zituzten)...

Agirrek lehendabizi egin zuena: agiri guztiak apurtu, familia La Panne-n utzi eta Bruselera joan, hemen bibotea utzi eta Panamako konsulak eman zion pasaportea lagun zuela, urtearen azken arte hor geratu. Bien bitartean, Parisera sartzen dira alemaniarrek, Companys Espainiara entregatu eta Franco fusilarazten du urrian. Agirrek eta denok ezagutzen dugun bezala, Amerikaratzen da gero.

Baina, zer gertatu da Eusko Jaurlaritzarekin.

Inork ez daki Agirre non den, eta *Leizaolak* hartzen du Frantziaren honen ardura. *Irujok*, bere aldetik, Londresen bizi zenez, *Eusko Konseilu Nazionala* eratzten du hemen. Gainontzeko konseilariak: *Aldasoro* Uruguayan da; *Nardiz* eta *Monzon*, Dakaren; *Aznar*, Mejikon. *Ziaurritzek*, EAJ-PNVko Lehendakariak, honen ekintza guztiak gera arazten ditu.

Herria oso kezkatua geratu da Agirreraren berririk gabe.

Gero-gerokoak, baina gaur, Frantziak eta Britania Handiak Alemaniari gerra deklaratu zioten egunean, 1939garrengo irailak 3, Eusko Jaurlaritzaren une larri hau ekarri nahi izan dut nire ikuspuntura.

¹ Arrapatzen dituzte, eta Luis Araya fusilatzen, *19 condenados a muerte*, Iñaki Barriola, Ediciones Vascas, Donostia, 1978.

² *De Gernika a Nueva York pasando por Berlín*, Ekin, Buenos Aires, 1944.